



HITZ POLISEMIKOAK

Batzuetan *poto* dirudiena ez da hala izaten, errima perfektua baizik!
Hori gertatzen da itxuraz berdina den oin bat errepikatzen denean baina **esanahi ezberdina** duenean.

Adibidez, koplak hauek.

BAZKARI ESKASA



Doinua:

Ama begira zazu!

Kopla edo lauko txikia

Lehenengo baten herriko
gazteok **batera**
bazkaltzera joan ginen
pizzeri **batera**.

Ez zen ondo ibili
Jokin lagun **mina**
mahai baten ertzarekin
hartu zuen **mina**.

Freskagarria bota
zioten **gainera**
ta erdi izoztuta
zegoen **gainera**.

Patxadaz zegoela
leihotik **begira**
ogi zati bat sartu
zioten **begira**.

Ez badira hornitzen
zerbitzari **berriz**
pizzeria horretara
gu ez goaz **berriz**.